

Elkai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

ETAkhoa izatea

Barka gai beraren inguruan pelmada ematen jarraitzeagatik, baina gai honek beste 300 hitz merezi dituela uste dut. Aurreko artikuluan nioen ETArri arrazoi ematea kriminalizatu dutela, bai diskurtso ofizialean bai egoitza judizialean. Jokaleku politikoa-ren eta juridikoaren arteko banaketa gezurrezkoa izatea baino okerragoa dena, bien erlijiozteza bizi dugula. ETArri arrazoi ematea heresia dela eta horregatik zigor gaitzaketela. Hura idatzi eta hurrengo astean 18/98 sumarioko zigorrak jakin genituen, agerikoa zena konfirmatu eta txiki utzi zuten.

Berme juridikorik eza, giza eskubideen urratze sistematikoa, zigorrak kolektibizatzea... ETArri aurka (aitzakia horrekin bederen) dena zilegi zaie-la sinetsi dute Madrilen. Baina dena ez da zilegi.

Auzitegi Nazionalean ez dira krimenak epaitzen. Heresia epaitzen da; partikulari, ETAkhoa izatea. Horregatik normala da galdetzea, nor da ETAkhoa gaur egun? Azken epaiketek erakusten dute bat izan daitekeela ETAkhoa ETAkidea izan gabe (eta, larriagoa dena, epaileek hori jakinda). ETAkidetza kontzeptua txikle baten moduan zabalduz, doktrina juridiko berria asmatu dute zeinean "ETAkhoa" izatea zigortzen den. Eta kontzeptu berri horren aurrean, batzuk jada ez dakigu ETAkhoa ote garen orain. Badakigu ez garelako ETAkideak, erakunde horretan ez dugulako



EGOITZ LASA

parte hartzen. Badakigu, baita ere, ez dugula inolako krimenik egin, egiten lagundu edo egitea erabaki. Baina hala ere, aplikatzen digute lege bat zeinean ez dakigun ETAkhoa ote garen. Edo, zeinean beraiei komeni zaienean ETAkhoa bihur gaitzaketen (eta horregatik gogorki zigortu).

Espainian legokeen heresiari larriena Euskal Herriaren independentzia politikoa bultzatzen dugunok errepresentatzen dugu. Baina noiztik da heresia politikoa norbait kartzelan

sartzeko arrazoi bat? Erromako zuzenbidea ekintzari, eta beraz erabakiari, aplikatzen zitzaion. Lapurra lapurtzeagatik zigortzen zen, ez lapurra izateagatik. Espainian ordea gauzak desberdinak dira, doktrina juridiko berriekin Estatuak bere burua zuzenbide pre-erromanikoan kokatu baitu. Auzitegi Nazionalean ez ekintza, ez erabakia zigortzen dute; heretiko izaera baizik. Zigorra merezitzeko nahikoa da Espainiaren batasuna arriskuan jar dezakeen edozer izatea. Politikoki euskaldun izan nahi izatea, adibidez. Edo euskal konstituzio bat nahi izatea, euskal erakundetze bat nahi izatea, edo ...

Alegia, ETAkhoa izatea ez da ETAkidea izatea bezalakoa. Ez da kontzeptu juridiko garbi bat, ez zaiolako norberaren ekintzei edo erabakiari aplikatzen. ETAkhoa izatea berunezko mailua da eta sortu dute independentziaren alde egiten dugun guztioi buruan emateko. ■



Auzitegi Nazionalean ez ekintza, ez erabakia zigortzen dute; heretiko izaera baizik.

Zigorra merezitzeko nahikoa da Espainiaren batasuna arriskuan jar dezakeen edozer izatea



TXANDAN

Edn Zelaieta

Foruetan



Berezi samarrak ohi dira Euskal Herriko foru plazak; nortasun handikoak, hiri edo herriaren erdialdean kokatuak gehienez. Halakoxea da, baita ere, Gasteizkoa. Edo, are bereziagoa, uzten badidazue. Ez naiz ari Txillidak eta Peña Gantxegik duela 30 urte elkarlanean diseinatutako arkitektura-eskulturaraz edota Iparragirre bardoak sorterrira itzultzean isuri omen zituen hitzez, nahiz eta hauek ere plazan aurkituko dituzun.

Frontoia da, nire ustez, Gasteizko Foru Plazari letra larria zinez ematen diona. Bertan, jende asko eta aski diferentea biltzeko ohitura errotuta dago. Pilotaren jokoa

lagun ezberdinen elkargune gertatu da nonbait. Esaterako, hiriko ijitoak eta *paioak* ellkarrekin aritzen dira; zahar nahiz gazte. Ez da, ez, arestikoa adibide arrunta gure hirian.

Hala ere, Gasteizko Udalak ez du bertan inbertitu nahi. Nahiago izan bide du Andra Mari Zuriko bataila-monumentuari buruzko herri eztabaida (sic) bultzatu, gasteiztarrok hitza eta parte har genitzan: monumentua mugitu bai ala ez. Demokraziaren ondorioz, gerra bati eskainitako garaikurra berritzen ari gara.

Hurrengoan, lagun nahiz amorante, *foruetan* egingo dugu zita. ■